

*Helduetan, ezkerretik eskuinera, Senpereko xapeldunak eta Abarratiako xapeldun ordeak, Union Basque, Bardozeko Herriko Etxeko eta Uhaldean pilotako elkarteko arduradunez inguratuak.*

**JME**

**Arretxe II – Iturriaga ..........................?**
**Elezkano II – Begino..........................?**
**Urrutikoetxea – Untoria ....................?**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| UMETXOAK - B | **AZKAINDARRAK 02** LARZABAL Iban GONZALEZ Oihan | 17 | **ESKULARI A.S. 01** ELISSALDE Baptiste ETCHEBASTER Allande | 30 |
| GAZTETXOAK - B | **HARDOYTARRAK 01** ETCHEPAREBORDE Iban URRUTIGARAY Nikolas | 30 | **AIRETIK 01** JAUREGUIBERRY Patxi HARISTOY Louis | 22 |
| GAZTEAK | **NOIZBAIT 02** MENDILAHATXOU Xabi DITHURBIDE Didier | 30 | **INTHALATZ 01** PATIN Robin LOYCE Julen | 21 |
| ARTEKOAK | **ESKULARI A.S. 01** ETCHEBARNE Benjamin BIZEAU Tom | 15 | **KAPITO HARRI 01** HAITZE Maxime PECHBERTY Antoine | 30 |

Agorrilaren 29an, larunbatean

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| UMETXOAK - A | **ABARRATIA 02** SAINT-ESTEBEN Julen JAUREGUIBERRY Olivier | 27 | **SARAKO IZARRA 01** IRIARTE Enaut IRIBARREN Oihan | 30 |
| KIMUAK - B | **ABARRATIA 01** HARISTOY Nicolas HERNANDEZ Pantxo | 29 | **ST PEE U.C. 01** LOPEZ Baptiste BEHASTEGUY Andoni | 30 |
| KIMUAK - A | **ZAHARRER SEGI 01** ELGART Yohan ETCHELET Jon | 20 | **ABARRATIA 01** ETCHEVERS Remi DURRUTY Mattin | 30 |
| GAZTETXOAK - A | **ATZARRI 01** CHAPELET Vincent RETEGUI Yon | 17 | **ZAHARRER SEGI 01** ERRAMOUSPE Inaki IRIGARAY Gehexan | 30 |
| HELDUAK | **ABARRATIA 01** LAHIRIGOYEN Gabriel NOBLIA Cedric | 14 | **ST PEE U.C. 01** PIERRY Enaut HUGUENARD Yves | 30 |

HERRIA 03/09/15

## Rémi Etchevers eta Mattin Durruty pilotari txapeldunak



*Aitzinean, ezkerretik eskuinera: Jon Etchelet, Yohan Elgart, Remi Etchevers eta Mattin Durruty. Gibelean, J-Paul Diribarne auzapeza, Jocou epailea, J-Claude Larrondo eta Beñat Durruty Abarratiako pilota arduradunak*

Bardozeko plazan iragan dira joan den igande arratsaldean, Union Basque batasunak antolatu pilota txapelketaren finalak. Abarratia pilota batasunak 4 aldiz finalean parte hartu du, kimu, umetxo, gaztetxo eta helduen mailan. Arratsalde arras gustagarria iragan dute gure pilotariek eta hauen segitzaileek, nahiz eta izigarriko beroa zen. Partida batzuk oren bat eta ½ iraun ere dute, eta argiekin frango berantean bururatu da helduen partida. Hona nola iragan diren gure putikoentzat.

- **Umetxoak**: Julen Saint-Esteben eta Olivier Jaureguiberry-k galdu 27 eta 30 Eñaut Iriarte eta Oihan Iribarren Saratarren aurka.
- **Kimuak B**: Nicolas Haristoy eta Pantxo Hernandez herritarrek ttantto soil batez, 30 eta 29, galdu dute finala, Baptiste Lopez eta Andoni Behasteguy Senpertarren kontra. Emaitzak erakusten du elgarren bete zirela.
- **Kimuak A**: Rémi Etchevers eta Mattin Durruty txapeldun ditugu 30 eta 20 Yohan Elgart eta Jon Etchelet Zaharrer Segi-koak garaiturik.
- **Helduak**: Gabriel Lahirigoyen eta Cedric Noblia-k galdu dute 30 eta 14 Yves Huguenard eta Eñaut Pierry Senpertarren aurka.

Xapelduneri, J-Paul Diribarne Bardozeko auzapezak dizkie sariak eskaini. Denek ezin irabaz, halere emaitza ederrak lortu dituzte gure pilotariek. Goresmenak txapeldun eta galtzaleei, bai eta Abarratia batasuneko arduraduner !